



Bergarako
Udala

Miguel Gonzalez Bastida Bergarako Musika Bandaren eta Bergarako Udalaren arteko hitzarmenaren aldaketa

Bergaran, bi mila eta hogeita hiruko martxoaren 20an, ondorengoak

BILDU DIRA

Alde batetik, Gorka Artola Alberdi jauna, Bergarako Udaleko Alkatea, Bergarako San Martin Plaza, z/g-ean egoitza izan eta P-2007900-J I.F.K. zenbakia duen Bergarako Udalaren izenean.

Beste aldetik, Enrique Churruca Larrañaga, 72446301G NAN zenbakia duena, Miguel Gonzalez Bastida Bergarako Musika Banda elkarteko lehendakaria, elkartearen izenean (egoitza soziala Bergaran Espoloia pasealekua z/g-an duena eta IFZ zenbakia G75184853).

Enrique Churruca Larrañaga jaunak zinpean alkate jaunaren aurrean aitortu ondoren bera eta berak ordezkatzeko duen elkarte ez daudela Estatuaren 2003ko azaroaren 17ko 38/2003 Legeak aurreikusitako debekuko kasuetan eta ezta Administrazio Publikoarekin hitzartzeko inolako bateraezintasun edo ezgaitasun arrazoietan ere sartuta, bi aldeek elkarri aitortzen diote behartzeko gaitasuna eta, hala, honako aurrekari hauek azaltzen dituzte.

AURREKARIAK

I. Bergarako udalak eta Miguel Gonzalez Bastida Bergarako Musika Bandak hitzarmen bat sinatu zuten 2021eko urtarrilaren 29n.

Hitzarmen horretan aurreikusten zen urteko dirulaguntza eguneratuko zela 2022tik aurrera gehienez ere aurreko urte naturaleko KPlarekin eta kontuan izanda musikarien kopurua.

Kontuan izanda KPlak 2022an izan zuen hazkundera udalak planteatu du irizpidea aldatzea eta jasota uztea 2023tik aurrera eguneratuko direla gehienez urte horretan udaleko langilegoak ordainsarrietan izandako portzentailean eta kontuan izanda musikarien kopurua.

Bestalde, hitzarmenean aurreikusita dago ordainketaren inguruan honako hau: *“Urteko diru-laguntza lau zatitan banatuta ordainduko da. Konturako ordainketak hiruhileko natural bakoitzaren lehen astean egingo dira, transferentzia bidez, elkartearen kontura transferentzia eginda.”*. Udalak hori betetzeko zailtasunak izaten ditu batez ere urte hasierako lehenengo egunetan Kontuhartzaitetzan langile gutxiago egoten delako.

Gauzak horrela eta Miguel Gonzalez Bastida Bergarako Musika Banda ados egonik, bi aldeek elkarri hitzarmen aldaketa hau sinatzeko ahalmena aitortu eta ondorengo klausulak dituen hitzarmen aldaketa adosten dute:

KLAUSULAK

LEHENA.- 2023an 107.131,39€ euroko laguntza ematea eta bigarren klausulan dirulaguntzaren eguneraketa aldatzea. Horrela honako hau dioen pasarte aldatzea jarraian zehazten den bezala:



2021eko hitzarmenak dioena:

Goian jasotako kopuruak eguneratuko dira 2022tik aurrera gehienez ere aurreko urte naturaleko KPIarekin eta kontuan izanda musikarien kopurua. Horretarako elkarteak aurreko urteko azaroaren 30a baino lehen hurrengo urteko aurrekontua eta musikarien zerrenda aurkeztuko ditu eta dagokion batzorde informatzaileak aztertuta, proposamena bideratuko dio alkateari, honek erabakitzeko.

Ematen zaion erredakzio berria:

Goian jasotako kopuruak eguneratuko dira 2024tik aurrera gehienez ere urte horretan udaleko langilegoak ordainsarrietan izandako portzentailean eta kontuan izanda musikarien kopurua. Horretarako elkarteak aurreko urteko azaroaren 30a baino lehen hurrengo urteko aurrekontua eta musikarien zerrenda aurkeztuko ditu eta dagokion batzorde informatzaileak aztertuta, proposamena bideratuko dio alkateari, honek erabakitzeko. Une horretan ordainsariak eguneratu gabe baleude, dekretuan zehaztuko da eguneraketa noiz eta zein eratarara egingo den.

BIGARRENA.- Hitzarmeneko bosgarren klausulako lehenengo pasartea aldatzea. Horrela honako hau dioen pasartea aldatzea jarraian zehazten den bezala:

2021eko hitzarmenak dioena:

Horrela honako honen ordez :

BOSGARRENA.- Urteko diru-laguntza lau zatitan banatuta ordainduko da. Konturako ordainketak hiruhileko natural bakoitzaren lehen astean egingo dira, transferentzia bidez, elkartearen kontura transferentzia eginda.

Ematen zaion erredakzio berria:

BOSGARRENA.- Urteko diru-laguntza lau zatitan banatuta ordainduko da. Konturako ordainketak hiruhileko natural bakoitzaren lehen hilabeteetan egingo dira, transferentzia bidez, elkartearen kontura transferentzia eginda.

HIRUGARRENA.- Aldaketa honek 2023ko urtarrilaren 1era arteko atzera eragina izango du. Gainontzean 2021eko urtarrilaren 29an sinatutako hitzarmenean jasotakoak jarraituko du indarrean.

Eta adostasun-gisa, parte-hartzaileek agiri hau hirukoiztuta sinatzen dute, goiburuan adierazitako lekuan eta egunean, eta nik, Idazkariak, fede ematen dut.

Sin.: Gorka Artola Alberdi
Bergarako alkatea

Sin.: Enrique Churruca Larrañaga
Elkarteko presidentea

Sin.: M^a Concepcion Ugalde Izeta
Udal Idazkaria

